


BPGrekiko I+Gko gastuan Gipuzkoa sendo Europako batez bestekoaren gainera

BPGrekiko I+G gastua %2,41 izan zen Gipuzkoan, %1,85 Bizkaian eta %1,54 Araban 2009an

Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) BPGrekiko gastuan hirugarren urtez jarraian da Gipuzkoa (%2,41) 27-EBko batez bestekoaren (%2,01) gainera; Euskal AEko beste bi lurraldeekiko aldea areagotu egiten da. Bizkaian (%1,85) eta Araban (%1,54) ere hazi egin da gastua aurreko urtekoaren (%1,74 eta %1,46) aldean. Hiru lurraldeak daude Espainiako batez bestekoaren (%1,38) gainera.

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGari dagokionez (%)



Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA. EUROSTAT


2009. urtean Euskal AEn 1.281 milioi euro gastatu ziren Ikerketa zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, BPGren %1,98. Bizkaian 609 milioi (Euskal AEko guztirakoaren %47,6); Gipuzkoan 510 (%39,8) eta Araban 162 (%12,6). Ehuneko hauek 2008koen antzekoak dira; Araban 0,44 puntuz jaitsi dira; Bizkaian 0,28 igo eta Gipuzkoan 0,16.

I+Gko **barne-gastuaren** hazkundera aurreko urtearekiko %1,35 izan zen Euskal AE osorako. Bizkaian 598tik 609 milioira igo da gastua; Gipuzkoan 501etik 510era; Araban 165etik 162ra jaitsi.

Gastu-motari erreparatuz gero, Euskal AEn gastu arruntak 1.033 milioitik 1.076ra igo dira (%+4,2) azken urtean. Bizkaiko gastua 495 milioitik 516ra igo da (%+4,2). Gipuzkoakoa 401etik 426ra (%+6,2). Araban 137tik 134ra jaitsi da (%-2,1).

Kapital-gastuak (lur, eraikin, ekipo eta lanabesetako inbertsioak) 231 milioitik 205era jaitsi dira, 2008an baino %11,3 gutxiago. Jaitsiera, hiru lurraldeetan, ezberdin: %-16,2 Bizkaian, %-9,0 Gipuzkoan eta %-2,1 Araban.

2. grafikoa: I+Gn egindako barne-gastua, egikaritze-sektorearen arabera (%)



Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA

Egikaritze-sektoreen arabera, enpresa-sektoreak darrai gastu-ehunekorik handiena egikaritzen hiru lurraldeetan; halere, sektore honen pisua hiruretan murriztu da 2008tik. Unibertsitatea eta Administrazioa hazi egin dira hiru lurraldeetan.

Hiru lurraldeek eutsi diete haien berezitasunei. Araban pisu handiagoa du Administrazio Publikoa sektoreak, gastuaren %9,9. Bizkaian gastu hori %6,6 da eta Gipuzkoan %3,2.

Gipuzkoan (%80,3 eta 409 milioi) du enpresa-sektoreak pisurik handiena. Araban ondoren (%75,8, 123 milioi) eta Bizkaian (%73,2, 446).

Bizkaian unibertsitatearen egikaritze nabarmentzen da, gastuaren %20,2; Araban %14,3 eta Gipuzkoan %16,5.

Enpresa-sektorean baliabide pribatuek I+Gko barne gastuaren %68,2 finantzatzen dute

Euskal AEn %68,2 da ekimen pribatuen enpresa-sektoreko I+Gko gastuaren finantzazioa. Araban, % 77,6; Bizkaian %68,0 eta Gipuzkoan %65,6.

Dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn ari diren langileak, guztira, ugaritu egin dira hiru lurraldeetan, 2008ren aldean. Araban 2.275 pertsona dira, %49,3 ikertzaileak. Bizkaian 7.676, %66,0 ikertzaileak, eta Gipuzkoan 6.740, %62,2. Araban ikertzaile-proportzioa txikiagoa da, baina handiagoa besteetan baino teknikarien (%39,5) ehunekoa.

Emakumeen parte-hartzea I+Gko jardueretan enplegatuen %35,9 da Araban, %35,8 Bizkaian eta %31,4 Gipuzkoan. Nabarmentzekoa da Araban emakume ikertzaileen ehunekoa 2008ko %32,6tik 2009ko %38,5era joan dela.

1. taula: I+Gko adierazleak lurralde-eremuaren arabera. Urte bat 2009

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE	Espainia
I+G GASTUAK (%) / BPG	1,54	1,85	2,41	1,98	1,38
I+G GASTUAK (%) FINANTZAKETAREN ARABERA					
Enpresak	60,5	54,2	52,1	54,0	43,4
Administrazioa	36,9	39,4	41,3	40,0	47,1
Goi-mailako irakaskuntza	1,0	2,6	2,7	2,5	3,4
Bestalako iturriak	0,1	0,8	0,3	0,5	0,6
Atzerria	1,5	3,0	3,5	3,0	5,5
I+Gko PERTSONALA (DOB) *					
Pertsonala guztira	2.275	7.676	6.740	16.690	220.777
Ikertzaileak	1.122	5.070	4.194	10.386	133.803

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA. EIN

Aurreko urteetan bezala, Ingeniaritza eta teknologia da gasturik handiena (%69,7) egikaritzen duen eta pertsonarik gehien (11.609) enplegatzen dituen **diziplina zientifikoa**. Euskal AEn enpresek finantzaturakoa da diziplina honen %84,7. Diziplina hori hiru lurraldeetan nabarmentzen da, baina batez ere Gipuzkoan, non den I+Gko gastuaren %77,0 eta nora doan enpresen funtsen %90,8. Bizkaian gastuaren %65,4 eta %81,4an enpresek finantzaturak; Araban %63,4 eta %77,9.

Arabako I+Gko gastuaren %48,6 enpresa txikietan egikaritu da

50 langile baino gutxiagoko enpresek enpresa sektoreko I+Gko gastuaren %30,6 egikaritu zuten. Ehuneko hori %48,6 da Araban; ehuneko 5 puntuz hazi da 2008ren aldean, azken urteetako hazkundeari eutsiz. Gipuzkoan gastuaren %26,7 da eta Bizkaian %31,0.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Vázquez Sancho

Tel.: +34-945-01 75 46 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko datu bankua